

## *Donoztiri*

Aurkibidea

### **Udalerria: Donoztiri**

#### **Sarrera**



Arberoa eskualdean kokatzen den Nafarroa Behereko udalerria da Donoztiri. Udalerrri hauek ditu mugakide: Izturitze iparraldean; Donamartiri ipar-ekialdean; Aiherra ipar-mendebaldean; Heleta mendebaldean; Armendaritze hego-ekialdean; eta Iholdi hegoaldean. Argazkian, Doneztebe eliza ([www.eke.eus](http://www.eke.eus)-etik hartua).

- **Biztanleak:** 475
- **Euskaldunak:** %23,12

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **62**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **62**

## Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak
- Lierni Elortzaren fondoak

## Hizlariak

### Daniel Landart Urruti (1946)



Donoztirin (Nafarroa Beherea) jaioa, Harigain bordan. Ama zuen bertakoa eta aita, berriz, Olagarrekoa, biak laborariak. Bi arreba zaharragoak izan zituen. Inprimeriako langile, idazle eta kultura-eragile, zaletasun gisa ditu herrigintza eta kultura-ekitaldiak. Elkarrizketa egin zitzaionean, Uztaritzen (Lapurdi) bizi zen.

### Maddi Oxarango (1907-2009)



1907ko agorrilaren 11n sortu zen Marie Petrisans, Donoztiri Mendiburuko Bordan. Lau haurrideetarik zaharrena. Zazpi urte zituenean 1914-1918ko gerla jin zen eta arreba ttipiaz arduratu behar izan zuen; horregatik arrunt gutti ibili zen eskolan. Sehi egon zen zortzi urtez, ezkondu arte. Artetik josten ere ikasi zuen. Herritar batekin ezkondu zen 1931n (24 urte zituen). Bost urtez elkarrekin lan egin zuten Lüküzeko jauregian: senarra auto gidaria zen eta Maddi, besteak beste, sukaldaria. Ondotik Donapaleura joan ziren bizitzera eta sei haur hazi zituzten bertan. Senarrak kanpoan lan egiten zuen bitartean, Maddi etxean gelditzen zen haurrez, baratzeaz eta animaliez (behi eta urde) arduratzeko. 94 urte ukan zituenean, Donapaleuko xahar etxean sartu zen Maddi. 2009ko abenduaren 29an zendu zen Maddi Amikuzeko hiriburuan, 102 urtetan.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Aisia

#### 1.1. `Etxe gabeak´ antzerkia zentsuratua

- **Hizlaria(k)**: Landart Urruti, Daniel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza Puiadena, Lierni

- **Erref:** DTI-002/019
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:25:32. **Bukatu:** 00:27:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Antzerkia  
101L » Kultur aniztasuna
- **Laburpena:** `Etxe gabeak´ antzerkia, Lazkaorako idatzia; Joxe Mari Begiristain eta antolatzaileak eskertzeko idatzi zuen eta osoki zentsuratu zuten. Aurretik eman zuten `Noiz´ antzerkiak ez zuten uste zuten zentsura kontrolik pasa.

### Transkripzioa

- Zein izan da taularatu gabe gelditu den obra?
- Ba hori izan zen "Etxe gabeak". "Etxe gabeak" antzerkia, Lazkaoko gazte... bon, jende batzuek... beste batzuk... heentzat idatzi nuena, zeren hirurogoita hamar-hamaikan, "Noiz" antzerkia eman ginuen Lazkaon. Hemen lehen aldikoz talde hori... talde bat joaten zela Hegoalderat eta alimaleko arrakasta eta ongi etorri bat izigarria ukan ginuen. Joxe Mari Begiristain bereziki eskertu nahi nuke eta eskertzeko, prezeski, antzerki bat idatzi nien, baina zentsuratua izan zen osoki. Eta... eta... eta pena. Pena izan zen, baina, bestenaz, beste antzerki guziak emanak izan dira. Bai, zentsuratua izan zen osoki.
- "Etxe gabeak".
- "Etxe gabeak". Eta zeren eman ginuela... "Noiz" eman ginuelarik ere, zentsuraren aitzinean pasatu behar izan ginuen, baina etorri behar zen gizona edo gaztea, ez dakit, edo... apaiza edo ez dakit zer, ez zen etorri. Eta, beraz, ez ginakien libre ematen ahalko ginuen eta eman ginuen, bai, eman ginuen. Eta, beraz, antzerki hori debekatua... eeee... zentsuratua izan zen eta zinez Hegoalden emaitako egina zen eta nehoz... nehoz... nehoiz... nehork geroztik ez zuten eman. Ez da eman.
- Eta obra hori...
- Emaiten ahalko zen ere zentsura pasatuta eta, baina...
- Ez da hartua izan.
- Hori da.
- Bueno, orain botako dugu akuilua. Oraindik ere... antzerki lan hori taulan ikusi ahal izango litzeke? Moldaketarik beharko luke? Nola ikusten duzu?
- Uste dut bai. Ba bai, ba bai, ba bai.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Donoztiriko neskato baten haurtzaroa et gaztaroa 1907-1925 arte hortan (DTI-001/001)

Maddi baserri batean sortua da eta ez da kasik batere ibili eskolan. Hamaika urtetatik hara, segi egon da eta josten ikasten, ezkondu arte. Akizen sehi zelarik berak frantsesa irakurtzen ikasi zuen.

## **2. Etxetiar izaitea (DTI-001/002)**

Laborari etxetiarrak nagusi baten etxean eta lurretan bizi ziren eta alokairu bat zor zioten : kabalen salmentaren erdia, uzten erdia etabar. Garai hartan etxetiar frango baziren Donapaleu euskaldean.

## **3. Baserriko lanaren dorpea (DTI-001/003)**

Aitzurka, iraultzen edo egur pikatzen, lan guziak eskuz egiten ziren Euskal Herriko etxalde edo baserrietan XX.mendearen lehen zatian.

## **4. 1914-1918 gerla (DTI-001/004)**

Maddi Oxarango 7 urte zituenean, aita eta osaba joan zitzaizkion gerlara. Maddik eskola utzi zuen bere ahizpa ttipia zaintzeko. Etxeko lanak emaztek egiten zituzten.

## **5. Ogiaren egitea (DTI-001/005)**

Asteko ogia egiten zuten Dohoztiri Mendiko Bordan : irina ohatu, urarekin nahasi, altxagarria ezarri, hanbat jestu bereziek egiten duten ogi ona.

## **6. Haurtzaroko oroitzapen bat (DTI-001/006)**

Maddi Oxarango oroitzen da ama joanik erosketa egitera eta bera eta bere anaia 3 ilabeteko ahizpa tipia zain egonik etxean. Iluna jinik eta sua itzalirik, auzora joan ziren gauez gau hiru haurrideak lo egitera

## **7. Donoztiriko pertsonai oroigarriak (DTI-001/007)**

Maddi Oxarango oroitzapen berezia dauka haurtzaroan auzoan bizi zen emazte batetaz. Honek erretzen zuen eta Maddi igortzen zuen herriko saltegira sudurreko tabako erostera.

## **8. Donoztiriko andere-serora eta ezkila-joilea (DTI-001/008)**

Bi pertsonai desberdinen ziren Dohoztirin. Andere-serora mutxurdina zen, eliza garbitzen zuen, ostiak egiten, katixima erakasten. Ezkila-joilea elizatik hurbil hurbila bizi zen.

## **9. Otzozelaiko harpeen aurkikuntza (Donamartiri- Isturitze) (DTI-001/009)**

Eiherazain familia bateko bi anaiek aurkitu zuzten harpe horiek. Isturitzetik, Donamartiritik bai eta ere auzo herrietatik, jende frango sartu ziren harpeetan, horietan barnean kokaturik egon zen Mehaineko erretorra.

## **10. Etxekandere baten segi, dendari baten aprendiz. (DTI-001/010)**

Ezinbestezko bi egonaldi egiten zituen garai batean edozein neska gaztek: segi egoiten zen etxe baten eramaiten jakiteko, josten ere ikasten zuen dendari baten etxean.

## **11. Lukuzeko jauregiko neskato baten bizia (DTI-001/011)**

Sei langile baziren garai batean Lukuzeko jauregian, bakoitzak bere betebeharrak bereziak zituela : kozinertsia, baratzezaina... Behiak, lurrak eta bereziki mahasti frango bazituen jauregiak.

## **12. Familia xoil baten bizia Donapaleun 1940-1950 hamarkadetan (DTI-001/012)**

Maddiren senarra lanean ari zen etxez etxe. Maddi haurren hazteaz eta hezteaz arduratzen zen. Behi batzu eta oiloak ere bazituzten.

## **13. Komunione egunetako menu berezia (DTI-001/013)**

Besta egunetan, ez ohiko apairuak antolatzen ziren. Maddi Oxarangok zehazten du zer eskaintzen zuen gomitei komunione egunetan.

## **14. Pekadaren errezeta (DTI-001/014)**

Maddi Oxarangok ikasi du pekada kozinatzen segi zelarrik Akizen. Bere errezeta ematen digu.

## **15. Aza haragiz betea (DTI-001/015)**

Maddi Oxarangok badaki azaren kozinatzen eta bere segetua ematen digu.

## **16. Burraren (gurina) eta xaboiaren egitea (DTI-001/016)**

Maddi Oxarangok aipatzen du gurinaren eta xaboiaren egitea.

## **17. Xuriketen egitea (DTI-001/017)**

Maddi Oxarangok xuriketak « lessiveuse » batean egiten zituen (azpitik suarekin beroarazten den untzi handi bat) : xuriketak trenpatu, xaboinatu, « lessiveuse » delakoan egosarazi eta ondotik urean pasatu.

## **18. 1939-1945 eta Algeriako gerlen oroitzapenak (DTI-001/018)**

Maddi Oxarangok Algeriako gerla (bere bi seme zaharrenak egon ziren Algerian) ezagutu du. Bainan oraino hurbilagotik bizi izan du bigarren gerla mundiala : Donapaleu zona okupatua izanez, alemanak baziren denetan (besteak beste auzapezaren eta apezaren etxean). Presoek ziratzten zituzten alemanen zapetak.

## **19. Auzoekilako harremanak (DTI-001/019)**

Maddi Oxarangori auzoak heldu zitzaizkon arraultze eta esne keta. Bera ere ibiltzen zen auzoen laguntzen : belar pikatzen, ogi xutitzen, arto biltzen, mekaniketako bazkari prestatzen

## **20. Donapaleuko bestak (DTI-001/020)**

Sobera lan izanez etxean, Maddi Oxarangok ez zituen herriko bestak gozaten : haatik haurrak pixka bat handitu zirenean, heien xeka joaiten zen, plazara, dantzaldia zen tokira, gauerditan.

## **21. Galabrotsak (gau arrabotsak) (DTI-001/021)**

Maddi Oxarangok bi aldiz bederen entzun ditu galabrotsak (tutak gauaz) : bere izeba eta auzoaren kasuan. Lehena alargun batekin ezkondu zen ; bigarrena, bera alarguntsa izanez, garruztar batekin ezkontzera menturatu zen. Bi emaztek tutak jasan zituzten, sosa emanez gero gazteak ixildu ziren.

## **22. Elekrika (argi indarra) (DTI-001/022)**

Berant artio elektrikarik ez ukanez, beste molde batez argitzen ziren jendeak (petrolioazko lanpekin besteak beste).

## **23. Familia handiak (DTI-001/023)**

XX.mendeko lehen 50 urtetan, 10-12 haurretako familia asko baziren.

## **24. Haur ukaitea (DTI-001/024)**

XX. mendeko lehen 50 urtetan, haurrak etxean ukaiten ziren, medikuarekin edo gehienetan emaitzarekin. Donapaleu euskaldekoko emaitza, garai hartan, Etchepare anderea zen.

## **25. Emaztearen tokia biziaren erritoetan (DTI-001/025)**

Maddi Oxarangok ezagutu ditu emazte kozinertsak etxez etxe ibiltzen zirenak okasione berezietan (komunione eta ezkontzetan bereziki). Bera ibili da auzo etxeetako hilen beztitzen.

## **26. Bere buruaren aurkezpena (DTI-002/002)**

Daniel Bertrand "Pettan" Landart Urruti berez, baina denek Daniel.

## **27. Inprimeriatik artikulua idaztera (DTI-002/003)**

Lanbideak: gazte-gaztea zela, inprimerian hasi eta artikulua idazten hasi zen euskaraz 17 urterekin.

## **28. Osasun ahula etsai eta konplize (DTI-002/004)**

Etxearen segida arrebak hartu zuen, berak ezin baitzuen. "Osasun ahulak salbatu nau"; horri esker idazten eta kultur munduan pasa du bizia.

## **29. Sortetxean ongi sustraitua (DTI-002/005)**

Ongi sustraitua bere sortetxera. Familiari, batez ere amari eta amatxiri oso lotua.

## **30. Amatxik euskaraz boz gora irakurtzen zion (DTI-002/006)**

Amatxirekin arratsalde osoak pasatzen zituen eta euskaraz irakurtzen zion; "horri esker euskara landua sartu zaut ene baitan".

## **31. Inprimeriako lehen urteak (DTI-002/007)**

Inprimeria erdal itsasoa zen. Hurbildu zitzaizkion lehen euskaldunak Pierre Narbaiz eta Hiriart Urruti; "ni harro horrelako pertsonalitateak nirekin ari zirelako".

## **32. Linotipista ofizioaz (DTI-002/008)**

Egun desagertua den linotipista ofizioa zer den azaltzen du.

## **33. Gazte eta Etxea kazeta euskaldunak (DTI-002/009)**

Astean behin Gazte eta Etxea euskarazko kazetak (aldizkariak) egiten zituzten inprimategian.

### **34. `Ahularen indarra´ liburuaren azalaz (DTI-002/010)**

`Ahularen indarra´ liburuaren azalean Daniel linotipista ofizioan azaltzen da.

### **35. Jende interesgarri asko ezagutu zuen gazte-gaztetatik (DTI-002/011)**

Kultur munduko erreferente bilakatu zen inprimeriatik hasita. Jende esanguratsu asko ezagutu zuen: Madariaga, Eneko Irigarai, Jakes Abeberry, Jean Louis Davant, Monzon... eta militantzian hasi zen gazte-gazterik.

### **36. Euskaltzain urgazle eta antzerki idazle (DTI-002/013)**

Euskaltzain urgazle izendatu zuten. Antzerkiak idazten zituen. "Urterik emankorrenak 1965etik 1985era izan nituen". Kultur arloko profesional bilakatu zen eta gauzak aldatu ziren.

### **37. Hogei libururik gora idatzi ditu (DTI-002/014)**

Hogei libururik gora idatzi ditu: antzerkiak, poesiak, eleberrak, itzulpenak... baita kantuen hitzak ere.

### **38. Aitzindari gai sozialak plazaratzen (DTI-002/015)**

Aitzindari izan zen gai sozialak eta ideia abertzaleak plazaratzen, bai kantuen bidez, bai antzerkien bidez.

### **39. Umorea, mezuak pasatzeko (DTI-002/016)**

Hitz egiten duen bezala idazten du, umorearekin; "oso inportantea da niretzat";

### **40. `Aihen ahula´ liburuaz (DTI-002/017)**

Autobiografikotik asko du bere obrak. Daniel `Aihen ahula´ liburua argitaratzera ausartu zen.

### **41. Antzerkiak idatzi eta taularatu (DTI-002/018)**

Antzerki obra asko idatzi ditu eta denak (`Etxe gabeak´ izan ezik) taularatu dira.

### **42. Bizitzan aldaketetara ongi egokitu da (DTI-002/020)**

Bizitzan aldaketa handiak ezagutu ditu, baina ongi egokitu da, beti gazteagokoekin lan egin izan duelako.

### **43. 1968an lehen liburua: `Hogei urte´ (DTI-002/021)**

1968koa du lehen liburua: `Hogei urte´ poesia bilduma. Den-dena berak egina, lehen hizkitik hasi eta saltzera artekoa; "nehaur harritzen naiz orain".

### **44. `Aihen ahula´ liburua oso irakurria (DTI-002/022)**

`Aihen ahula´ oso liburu irakurria, ikastolei esker, bere ustez. Maite Barnetxek irratian irakurtzea proposatu zion eta oso entzuna izan zen.

### **45. Nola hasi zen idazten (DTI-002/023)**

Simone de Beauvoir irakurri eta hasi zen idazten. Eri izan ondoren idazten zuen. Hiru aldiz publikatua izan da `Aihen ahula´.

#### **46. `Battita handia´ liburuaz (DTI-002/024)**

`Battita handia´ liburuak Irun Hiria literatur saria irabazi zuen 1993an. Biografikotik ere badu. "Hizkuntzaren musika pasa arazi nahi nuen".

#### **47. `Battita handia´ liburuko pasarte jakin bat (DTI-002/025)**

`Battita handia´ liburuaren pasarte bat, animaliei buruzko erreferentziak. Galtzear dauden hitz asko aipatuz.

#### **48. `Enbataren xirimolan´ kronika liburua (DTI-002/026)**

`Enbataren xirimolan´ kronika liburua, Iparraldea ezagutzeko oso aberatsa. Hegoaldean ez du behar besteko oihartzunik. "Diferentzia handiak badira historikoki, kulturalki Iparraldea eta hegoaldearen artean".

#### **49. Hegoaldea eta Iparraldea elkarren artean ezezagun (DTI-002/027)**

Hegoaldea eta Iparraldea elkarren artean ezezagun. Eustakio Mendizabal ezagutu zueneko. Errefuxiatuentzat "ideologikoki Euskal Herria zen, baina arrotz herria". "Eskerrak errefuxiatuak izan ditugun, eta ikastolak...".

#### **50. EKEk bultzatutako ekimenak eta herrien arteko loturak (DTI-002/028)**

Gaur arteko garapenaz irakurketa aski positiboa, herrien arteko gurutzatzea. Euskal Kultur Erakundearen zelarik, harremanak sortu zituen kultur mailan, baina zaila da, ez gara aski gurutzatzen.

#### **51. Momentu historiko garrantzitsuak bizi izan ditu (DTI-002/030)**

Oso momentu garrantzitsuak bizitzea tokatu zaio kulturalki eta jende ospetsu asko ezagutu du.

#### **52. Euskal departamentuaren hasiera (DTI-002/031)**

Euskal departamentuaren sorreran parte hartu zuen. "Xanza handia izan dut mogimendu horien guztien abian parte hartu baitut xumeki. Zinez aberatsa izan da niretzat, ez diruz, bai izatez".

#### **53. Euskara batuaren lehen urratsak (DTI-002/032)**

Euskara batuaren lehen urratsak eta polemikak, Euskadi hitzaren inguruan, esaterako,

#### **54. Iparraldeko liburuetan hiztegitxoaren aldekoa (DTI-002/033)**

Iparraldeko liburuetan batzuetan hiztegia azaltzen dela eta beharrezkotzat jotzen duela dio.

#### **55. Hegoaldean beti euskaraz (DTI-002/034)**

Hegoaldera egiten zituen irteerei buruz; beti euskaraz aritu izan da "berogarri izan da beti han sentitzen nuena".

## 56. Euskarak egiten gaitu herri (DTI-002/035)

Herri egiten gaituena euskara da. "Deba, Azpeitia, Oiartzun zinez berotzen ninduten herriak".

## 57. Kantuen hitzak ere idatzi ditu (DTI-002/036)

Anje Duhaldek eta Mixel Ducauk Danielen hemeretzi kantu musikatu dituzte, gai sozialak, abertzaleak, maitasun kanta.

## 58. `Zure begiek` kantaz (DTI-002/037)

`Zure begiek` kantaz.

## 59. Antzerkian bizi izandako pasarte bat (DTI-002/038)

Mixel Beherokoirigoinekin antzerkian bizi izandako pasarte bat.

## 60. Telebistak ekarri zuenari buruzko hausnarketa (DTI-002/039)

Telebistak ekarri zuenari buruzko hausnarketa, euskararen kaltetan. Eta baita Euskal Telebistaz ere.

## 61. Lasaitasuna sentitu du idatzitakoak jasota direlako (DTI-002/040)

Lasaitasuna sentitu du idatzitakoak jasota daudela jakinda.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-04-11*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com